

BAIKE LEHORRA



PATXO TELLERIA
EGILEA - ZUZENDARIA

MIKEL LOSADA - AITOR FERNANDINO
AKTOREAK



EGILEA ETA ZUZENDARIA

Patxo Telleria

BAKE LEHORRA

Europar bonben izua berriz sentitzen hasi garenean, "Bake Lehorra"-k gogora ekartzen digu erreza dela gerraren metxa piztea, eta aldiz, oso zaila dela itzaltzea. Gerra zaharren gaizki itzalitako txingarrek gerra berriak berpizten dituztela.

"Bake lehorra"-k XIX. mendeko gerra zibil batez hitz egiten digu, euskaldunen artekoa, gure etorkizuna baldintzatu duena. Gaur egun darabiltzagun kontzeptu asko, ezker-eskuma, liberalismo-integrismoa, erligio-laizismoa, espainolismo-fuerismo-independentismoa... gerra zibil haietan gorpuztu ziren. Duela gutxirarte pairatu dugun gatazka armatua, orduko sute horien txingarretatik sortu zen.

Nor garen, nondik gatozen eta norantz goazen ulertzeko, ezinbestekoa da orduan gertatu zena jakitea.

AMOREBIETAKO ITUNA. GURE HISTORIAKO GERTAERA EZEZAGUNA

Amorebietako Ituna, Bigarren Gerra Karlistan bakea ezartzeko ahalegin bat izan zen, gerra piztu eta hilabete gutxira. Itun horrekin ez zen inor kontent geratu, ez karlistak, ez liberalak.

Aste batzuk geroago, alde biak gerran murgildu ziren berriro. Anaien arteko gerra, odoltsua, basatia, lau urtez luzatuko zena.

"Bake Lehorra" gertaera horren eszenaratzea da. Gure historian garrantzitsua bezain ezezaguna den gertaera, hain zuzen. Kontakizuna erudiziotik eta historizismotik aldentzen da. Giza harremanetan kokatzen du fokoa, alde emozionalean.

SINOPSISIA

1872ko maiatzaren 24an, Amorebietan, Serrano Generala eta Orue Diputatua bakea negoziatzen ari dira, amultasun diplomatikoaz gozaturiko giroan; piramide sozialean apur bat beheago, atez bestaldean, alde biotako ofizialak (karlista eta liberala) politikarien segurtasuna babesten dute, elkarren arteko gorrotoa eta mesprezua aireratzen duten bitartean; gizarte eskalan beheago, Morgako kanpaleku karlista batean, karlistak soldadu liberal bat afusilatzen doaz, baina exekuzioa eteten da, bake-itunaren emaitza argitu arte; une hartan bertan, bederatzi legoatara, Oñatiko kanposantuan, bi nekazari negarrez ari dira, haur baten hilobiaren aurrean, liberal eta karlisten arteko liskarraldi batean irtendako bala galdu batek hildako haurra; inork ez daki bala zein aldetik irten zen.

Eszena hauek guztiak tartekatu eta kateatzen dira narrazioan. Zenbat eta gorago joan gizarte mailan, handiagoa da sarraskian duten erantzukizuna. Zenbat eta beheago joan, handiagoa da sarraskiak sortutako sufrimendua. Handiagoa erremina eta gorrotoa.

FITXA ARTISTIKOA

Egile eta Zuzendaria: **Patxo Telleria**

Aktoreak: **Mikel Losada eta Aitor Fernandino**

Gune sonoroa: **Adrian Garcia de los Ojos**

Jantziak: Nati Ortiz de Zarate

Argiztapena: **David Rodriguez**

Ekoizpen exekutiboa: **Pio Ortiz de Pinedo eta Myriam Garzia**

Ko-ekoizlea: **Amorebieta-Etxano Udala.**

Entitate Kolaboratzailea: **Koopera**

Kontaktoa: tartean@tartean.eus / 688617712



Ekoizleak:



Kolaboratzailea:



